



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 24a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsitako irizpenaren akats zuzenketa (7. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).
- Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (16. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Gobernuaren autokontsumo eta biltegitratze elektrikoari buruzko plan bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gogoan har dadin laguntzak emateko aukera kontratua izan eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egon arren prestakuntzarik edo gaikuntzarik ez daukaten zaintzaile profesionalek zaindutako pertsonen, baldin eta zaintzaile horiek hamabi hilabeteko epean prestakuntza edo gaikuntza lortzeko konpromisoa hartzen badute. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontuen Ganberaren antolaketari buruzko erregelamenduaren aldaketa (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2017ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramineak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena, eta Nafarroako 2017ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapideturik, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, bidezko da foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Nafarroako 2017ko kontu orokorrak, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak formulatuak eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuen edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Foru lege honek sei aldaketa sartzetik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean.

Artikulu bakarra, xedapen gehigarri bakarra eta bi azken xedapen dauzka.

Lehenengo apartatuak gaikuntza ematen die udalei ezkontza zibilak egiteagatik tasa bat ezar dezaten.

Bigarren apartatuak tributu kategoria berri bat sartzetik Nafarroako Toki Ogasunen esparruan: zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, ondare-prestazio publikoak bi motatakoak izan daitezke: zerga arlokoak eta zergaz kanpokoak. Zerga arlokoak zergak, tasak eta kontribuzio bereziak dira. Zerga arloko ondare-prestazio publikoekin batera, zergaz kanpoko ondare prestazio publikoak egonen dira aurrerantzean, zuzenean pertsonifikazio pribatuz edo zeharkako kudeaketa bidez emandako derrigortzeko zerbitzu publikoen kasuetarako.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrek egin bezala eta horrekin bat etorririk, eta Estatuak egin duen bezala, foru legeak xedatzen du ezen tributu kategoria berri hori (zergaz kanpoko ondare-pres-

tazio publikoak) Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ere ezarri behar dela. Zehazki, halakotzat joko diren prestazioak dira derrigortzekoak izan eta obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik eskatzen direnak, emakidaraubidekoak, ekonomia mistoko sozietateen bitartezkoak, enpresa-entitate publikoen bitartezkoak, kapital osoki publikoko sozietateen bitartezkoak eta zuzenbide pribatuko gainerako formulen bitartezkoak.

Halaber, zehazten da kontraprestazio ekonomiko horiek ordenantza bidez arautuko direla toki eremuan. Ordenantza hori onesteko prozeduran zehar, toki entitateek nahitaezko txostena eskatuko diete administrazio publikoei, antolamendu juridikoaren arabera toki entitate horien gaineko esku-hartze ahalmenen bat dutenei.

Horrela, asmoa da argitzea zein den tarifen izaera juridikoa, derrigortzek horiek ordaintzen direnean obrak erabiltzeagatik edo zerbitzuak jasotzeagatik, bai pertsonifikazio pribatu bidezko zuzeneko kudeaketaren kasuetan, Administrazioaren beraren bidez, bai zeharkako kudeaketaren kasuetan, emakida-hartzaileen bidez. Aurrekoaren arabera, derrigortzeko prestazio horiek zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak izanen dira.

Foru legeak 156.2 artikuluan ere aldaketa bat sartzetik zerga-egoitzari buruzko publizitatea kentze aldera Jarduera Ekonomikoen Erregistroaz ematen den informaziotik.

Gogorarazi behar da ezen, artikulu horren 1. apartatuak ezarritakoaren arabera, Erregistroa zentsuz osatuta egonen dela, "non jasoko baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten subjektu pasibo guztien identifikazio-datuak eta zerga-egoitza, jardueraren helbidea eta epigrafea edo azpiepigrafea, eta ordaintzen duten zergaren kuota (nazionala, lurraldekoa edo udaleko gutxienekoa)". Apartatu hori ez da aldatzen.

Horrez gain, Erregistro horren publizitateari dagokionez, 176. artikuluan 2. apartatuak xedatzen du Erregistroa jendearen eskura izanen dela urte natural osoan zehar, Nafarroako Zerga Ogasunaren web-orrian. Horren arabera, web horretan informazio ugariren berri ematen da, besteak beste jarduera ekonomikoaren helbidea eta subjektu pasiboaren zerga-egoitza. Bi helbide horiek berdinak izan daitezke edo ez, zergapetutako jarduera ekonomikoa non egiten den. Pertsona fisiko

baldin badira eta aipatu diren helbideak ez badira bat etortzen (hau da, ohiko etxebizitzaz bestelako lokal batean egiten da jarduera), badirudi zerga-egoitza argitaratzea gehiegizko esku-sartzetzat jo daitekeela, kontraesanean egon baitaiteke datu-babesaren funtsezko printzipio batzuekin.

Hori oinarri hartuta, foru legeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 156.2 artikulua aldatzen du, ez dadin argitara eman subjektu pasiboaren zerga-egoitzari buruzko informazioa. Bestalde, informazio horri ez zaio beharrezko irizten Jarduera Ekonomikoen Erregistroko datuak argitaratzearen helburua betetzeko.

Laugarren apartatuak udalak gaitzen ditu “zero igorpen” ibilgailuetarako eta ECO ibilgailuetarako hobarri fiskalak ezarri ahal izateko.

Artikulu bakarraren bosgarren apartatuak aldaketa garrantzitsu bat sartzen du 175.2 artikuluan; bosgarren eta seigarren paragrafoetan, hain zuzen.

Konstituzio Auzitegiaren 72/2017 Epaia betetzeko, 19/2017 Foru Legeak behar ziren aldaketak egin zituen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagozkionak, hiri-lurren balio-gehikuntzarik ez dagoen kasuetan zergapetzerik ez egiteko; betiere, baina, Konstituzio Auzitegiaren printzipioa errespetatuz, zeinaren arabera legegintza-politikako aukera guztiz onargarria baita gaitasun ekonomiko potentzialen zentzuzko objektiboko sistema batean oinarrituriko balio-gehikuntzak zergapetzearen alde eginikoa, egiatzko gaitasun ekonomikoari erreparatu beharrean. Horretan oinarrituta, foru legeak metodo objektibo bat ezarri zuen plusbalioen kalkulurako, denboran alda daitezkeen eta higiezin merkatuko prezioen bilakaera aintzat hartzen duten koefizienteen arabera betiere.

Sortzapenaren unean lurra duen balioari aplikatu beharreko koefizientea udalak onetsitakoetatik suertatzen dena izanen da, balio-gehikuntzaren gertatze-aldiaren arabera; baina foru legean ezarritako mugak gainditu gabe betiere (hau da, udalak txikiagoak ezartzen ahalko ditu, eta, hala egin ezean, foru legekoak aplikatuko dira). Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira. Arau-aldaketak zeregin horri heltzen dio.

Koefiziente horiek zehazteko, urte bakoitzeko batez besteko balioak hartu dira oinarritzat, Nafarroan dauden higiezinak (pisuak); horiei kendu zaie katastroko baloraziorako onetsitako eraikuntza kostuaren modulua. Horrela lortzen da lurzoruaren batez besteko balioa urte bakoitzeko.

Amaitzeko, foru legeak hamaikagarren bis xedapen gehigarri bat gehitzen du, urtarrilaren 15eko 1/2014 Foru Legean egindako akats bat zuzentze aldera. Foru lege horren bidez testu berria eman zitzaion Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen hamabigarren xedapen gehigarri gaur egun indardunari, zeinak arautzen baitu ADIF enpresa-entitate publikoak edozein zerga ordaintzetik daukan salbuespena, zergaren ordainarazpena Nafarroako toki entitatei dagokienean eta ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbide-azpiegituren eta geltokien eskualdaketingatik denean, uztailearen 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz (Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko legea).

Akatsa egon da, hamabigarren xedapen gehigarri horrek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean une horretan zegoen hamabigarren xedapen gehigarria indargabetu zuelako.

Hamaikagarren bis xedapen gehigarri berriaren bidez, akats hori zuzendu, eta indarra hartu du berriz hamabigarren xedapen gehigarri “zahar”aren edukiak, hasierako testuarekin; hau da, xedatzen duena ezen Iruñeko Udalaren araubidea (aurrekontuena, ekonomiko-finantzarioa, kontabilitatearena, kontu-hartzailearena, finantza kontrolarena eta eraginkortasun kontrolarena) izanen dela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluan aurreikusitakoa, foru lege honetako berezitasunekin.

Xedapen gehigarri bakarrak gogorarazten du foru lege hau gehiengo osoz onetsi behar dela, aintzat harturik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikulua.

Azken xedapenetako lehenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Amaitzeko, azken xedapenetako bigarrenak legearen indar-hartzea finkatzen du.

Artikulu bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 100. artikuluari 6. idatz-zatia gehitzea.

“6. Udalek tasa bat ezartzen ahalko dute ezkontza zibilak egiteagatik”.

Bj. 100. artikuluari 7. apartatua gehitzea.

“7. Derrigortzez ezartzen diren kontraprestazio ekonomikoek, artikulua honen 5. apartatuan aipatzen diren zerbitzu publikoak emateagatik jasotzen direnek, dela zuzenean pertsonifikazio pribatu bidez, dela zeharkako kudeaketa bidez, zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoen izaera izanen dute, Konstituzioaren 31.3 artikuluan aurreikusita-koarekin bat.

Zehazki, halako izaera izanen dute obrak ustiatu edo zerbitzuak emateagatik exigitzen direnek, emakida araubidean, ekonomia mistoko sozietate bidez, enpresa-entitate publikoen bidez, osotara kapital publikokoak diren sozietateen bidez eta zuzenbide pribatuko gainerako formulak erabiliz.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 109. artikuluan ezarritakoa ukatu gabe, apartatu honetan aipatzen diren kontraprestazio ekonomikoak ordenantza bidez arautuko dira. Ordenantza hori onesteko prozeduran zehar, toki entitateek nahitaezko txostena eskatuko diete administrazio publikoei, ordenamendu juridikoaren arabera horietan esku hartzeko ahalmenen bat dutenei.

Toki entitateetako diru-bilketa organoek premiamendu prozeduraren bidez exigitzen ahalko dituzte zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoen ondoriozko zorrak”.

Hiru. 156.2 artikulua.

“2. Urteko Erregistro hori jendearen eskura egonen da urte natural osoan Nafarroako Zerga Ogasunaren web-orrian, zerga-egoitzari buruzko datuak izan ezik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa galarazi gabe, zilegi izanen da bide beretik eskuratzea hurrengo datuak ere, kontsulta egiteko unean Jarduera Ekonomikoen Erregistroan jasota daudenak: jarduera ekonomikoak egiten dituzten subjektu pasiboak identifikatzekoak, eta jardueraren helbidea eta epigrafe edo azpiepigrafea”.

Lau. 162. artikuluari 4. apartatua gehitzea.

“4. Zerga-ordenantzek zerga-kuotaren gaineko honako hobari hauek arautzen ahalko dituzte:

a) 100eko 50erainoko hobaria ECO ibilgailuetarako.

b) 100eko 100erainoko hobaria '0 igorpen' ibilgailuetarako.

Aurreko paragrafoek aipatzen dituzten hobarien gainerako alderdi substantiboak eta formalak zerga-ordenantzan arautuko dira”.

Bost. 175.2 artikulua, bosgarren eta seigarren paragrafoak.

“Sortzapenaren unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko koefizientea, artikulua honetan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu, udalak onetsitakoetatik suertatzen dena izanen da, balio-gehikuntzaren gertatze-aldiaren arabera, baina muga hauek gainditu gabe betiere:

Gertatze-aldia:

0,63	20 urtekoa edo hortik gorakoa
0,56	19 urte
0,43	18 urte
0,29	17 urte
0,16	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,06	13 urte
0,06	12 urte
0,06	11 urte
0,06	10 urte
0,06	9 urte
0,06	8 urte
0,06	7 urte
0,06	6 urte
0,06	5 urte
0,20	4 urte
0,28	3 urte
0,18	2 urte
0,09	Urtebete
0,09	Urtebete baino gutxiago

Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira, 58.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz”.

Sei. Hamaikagarren bis xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaikagarren bis xedapen gehigarria. Iruñeko Udalaren araubidea (aurrekontuena, ekonomiko-finantzarioa, kontabilitatearena, kontu-hartzailetzarena, finantza kontrolarena eta eragin-kortasun kontrolarena).

Iruñeko Udalaren araubidea (aurrekontuena, ekonomiko-finantzarioa, kontabilitatearena, kontu-hartzailetzarena, finantza kontrolarena eta eragin-kortasun kontrolarena) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985

Legearen X. tituluan aurreikusitakoa izanen da, foru lege honetako berezitasunekin”.

Xedapen gehigarri bakarra. Gehiengo osoko foru legea.

Foru lege hau gehiengo osokoa da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta egikaritzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen efektuekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENAREN AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko foru lege proposamenaren irizpena argitaratzean –2019ko urtarrilaren 22ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala– zenbait akats aurkitu dira. Beraz, berririo argitaratzen da.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Eskubide Sozialetako Batzordeak 2019ko urtarrilaren 15ean eta 18an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Familia gizartearen funtsezko erakundeetako bat da, eta biztanleriaren gehiengoa hazi, hezi eta garatzen den eremua da. Familiak, beren tipologia guztietan, eta haien aldeko politika publikoek, garapen pertsonala eta gizarte kohesioa sortzen dute.

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua xedatzen du botere publikoek familiaren babes sozial, juridiko eta ekonomikoa ziurtatzearen betebeharra dutela, bai eta seme-alabei babes integrala ematearena ere. “Familia” kontzeptua azken urteetan dibertsifikatzen joan da, Konstituzioaren testuak aipatzen duen babesa aitortuta eta bermatuta eduki behar duten eredu desberdinak jasoz. Familia-mota ezberdinen artean, familia gurasobakarrak aurkitzen ditugu, zeinak nabarmen ugartu baitira azken urteetan, bai Nafarroako Foru Komunitatean, bai herrialde osoan ere.

Familia-mota hau, gehienetan, ahuldade-egoeran edo gizarte bazterketarako arriskuan aurkitzen da. Egoera horrek eragin berezia du emakumeengan eta adingabeengan, bai eta haien zaintzapean dauden mendeko pertsonengan ere, eta larriago bilakatzen da foru administrazio publikoak eta administrazio nazionalak haren izaera berariazkoa ez aitortzeagatik.

Nafarroako Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bitartez familia ugarietarako izan duten aitortzeak heldu diren ondorio positiboek lege honetarako inspirazio-iturri behar dute izan.

Foruaren Hobekuntzak 44. artikuluan aitortzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateak berdintasunerako politiken eta haur, gazte eta hirugarren adinekoren aldeko politiken arloko eskumena dauka. Familiak babesteko estrategia eta politika publiko desberdinak bermatzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko, ezinbestekoa da familia gurasobakarrak haien dibertsitate osoan definitzea eta haien aitortzearen bide egokiak ezartzea.

Familia gurasobakarrak presentzia irabazi dute azken urte hauetan, eta gehien hazi diren familia-motetako bat izatera ere iritsi dira.

Bizikidetasuna dela-eta gero eta dibertsitate handiagoa dago. Biztanleen Bizitza Baldintzen Inkestaren arabera, etxerik ohikoena bikoteak eta seme-alabek osatzen dutena da. Baina gehien ugaltu diren etxe-motak guraso bakarrekoak eta pertsona bakarrekoak dira.

INE 2017ko datuen arabera, honako hau da Nafarroako etxeen egitura: Bikotea seme-alabekin, % 34,12; pertsona bakarreko etxea, % 26,9; seme-alabarik gabeko bikotea, % 21,1; etxe gurasobakarra, % 9,08; elkarren artean familia ez diren pertsonen familia-gunea, % 3,7; bi familia-gune baino gehiago, % 1,4.

Familiaren, haurren eta nerabeen egoerari eta Nafarroako Foru Komunitateko haurren babeserako sistemari buruzko diagnostiko sozialaren arabera –zeina oinarri gisa hartu baita Nafarroako Gobernuaren Haurren eta Familien Babeserako II. Plana egiteko–, 8.632 dira beren kargura 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familia gurasobakarrak; hots, 18 urte baino gutxiagokoak dituzten etheen % 12 dira. Familia horiek bazterketa sozialeko arriskurik handieneko taldeetako bat bihurtu dira, dela enplegua lortzearekin zerikusia duten arazoengatik (soldaten arrakalarekin hertsiki lotutakoak), dela lanaren eta familiaren bateragarritasunari dagozkionengatik, dela kolektibo horren beharrezan erantzuteko zerbitzu publiko ezinbestekoen eskuratzea bermatzen duen politikarik ezagatik. Foru lege honek sustatzen duen aitorpenak aurrerapausoak emateko aukera eman du adingabeen, mendekotasuna dutenen eta emakumeen babes sozialean.

Foru lege honek beste autonomia erkidego batzuetan jadanik egin diren aurrerapenak jasotzen ditu; bereziki, Valentziako Erkidegoan Consellaren azaroaren 22ko 179/2013 Dekretuaren bidez gauzatutakoa –dekretu horrek, izan ere, familia gurasobakarraren izaeraren aitorpena arautzen du Valentziako Erkidegorako– eta Kataluniako Erkidegoko Familiei Laguntzeko uztailaren 4ko 18/2003 Legean jasotakoa. Egiazki eraginkorra izateko, familia gurasobakarren aitorpenak erantzun egin behar die haiek direla-eta aipagai ditugun kasu desberdinei; izan ere, gutxienez ere bi mota desberdin aurkitzen ditugu: familia-osaera zehatz bati erantzuten diotenak eta, egoera zehatz baten arabera, bazterketa-egoeran edo bazterketa pairatzeko arriskuan egon daitezkeenak, familia gurasobakarrek bizi ahal dituztenen antzekoak.

Horretarako, foru lege honek bi familia-mota bereizten ditu. Lehenbizi, guraso bakarra duten familia gurasobakarrak, egoera horren arrazoiak zein diren ere (familia horren jatorrian hartutako erabaki bat, heriotza, desagerpena, guraso-ahalarren galera eta abar). Eta bigarrenik, “guraso bakarrek egoera”n dauden familiak, seme-alabek eta bi gurasoek osatuak, baina une jakin batzuetan familia gurasobakarrek dauzkaten antzeko ahuldade-baldintzetan egon daitezkeenak. Lege honek kasu horiek zein diren zehazten du.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea.

1. Foru lege honen helburua da zehaztea zer baldintza bete beharko diren familia gurasobaka-

rraren izaera edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko.

2. (Kenduta).

3. Dokumentazioa familia osatzen duen pertsona bakoitzarentzat jaulkiko da, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa.

Puntu berria. Foru lege honek ezarritako laguntzak erregelamenduz finkatuko den per capita errentaren arabera arautuko dira.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie honako baldintza hau betetzen duten familia guztiei: beren kideek eskabide-aurkezpenaren egunera arteko aldia Nafarroako Foru Komunitateko egiazko egoiliar gisa igaro izana, etenik gabeko urtebetez, gutxienez ere.

3. artikulua. Familia gurasobakarraren eta gurasobakartasun-egoerako familiaren kontzeptuak.

1. “Familia gurasobakar”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren batekoa:

a) Pertsona batek eta haren seme-alabek osatua, Erregistro Zibilean pertsona hori guraso bakartzat inskribatuta duela.

b) Alarguntasun-egoeran edo horren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek eta berak pertsona zendu edo desagertuarekin izandako seme-alabek osatzen dutena.

c) Pertsona batek eta horren seme-alabek osatuta dagoena, baldin eta guraso-ahala modu eksklusiboan badu.

d) Pertsona batek eta urtebeterako edo gehiagorako harreran hartuta dituen adingabeek eta lehenago harrera iraunkorrean egon diren adingabek osatzen dutena.

2. “Gurasobakartasun-egoerako familia”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren batekoa:

a) Seme-alaben zaintza eta jagoletza eskusiboki gurasoetako batek dueneko, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gaintzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

b) Familia bat non bere kargura seme-alabak dituen pertsonak beste gurasoarengandik genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat urtebetez edo gehiagoz espetxeratuta daukana, baldin

eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

d) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bati Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortu dionekoa, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoeran ez dagoen pertsonak eta haren seme-alabek.

e) (Kenduta).

3. Alargun batek edo horren egoeraren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek inongo kasutan ere ezin izanen du lortu "familia gurasobakar" tituluaren onuradunaren izaera, baldin eta epai irmoz zigortua izan bada giza hilketa-dolozko delitu batengatik, hilketa horren biktima izan denean pertsona hura (bikotea edo bikote ohia) zeinarekin ondorengoak partekatzen baitzituen, edo pertsona hura zeinarekin antzeko afektibitate-harreman baten bidez lotuta baitzegoen.

4. artikulua. Familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun-egoerako familiaren egiaztageria lortzeko baldintzak eta betekizunak

1. Seme-alabek bete beharreko baldintzak, familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko edo mantentzeko.

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea: 1. 21 urte baino gutxiagoko adina izatea. Muga hori 26 urtera arte luzatuko da, baldin eta lanpostu bat lortzea xede duten ikasketak egiten ari badira. 2. % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua, mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia izatea, adina edozein dela ere.

b) Gurasoarekin bizitzea. Ulertzen da bi urte edo denbora laburragoko bereizte-aldi iragankorrek ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza –nahiz eta bereizita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan–, baldin eta bereiztearen arrazoia bada ikasketak egitea, lana, tratamendu mediko bat, errehabilitazioa edo antzeko beste arrazoi batzuk, horien barne direla ezinbesteko kasuak, gurasoak edo seme-alabak kartzelan sartzea edo adingabeen

erantzukizun penalari buruzko araudiari jarraikiz zentro batean barneratzea.

c) Ekonomikoki gurasoaren mendekoa izatea. Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabek, bakoitzak bere aldetik, diru-sarrere-tan ez dutenean lortzen OAEAParen % 100 baino gehiagorik, urtebeteko kontaketa eta aparteko soldatak barne. Ez dira kontatuko zurtasun-pentsioetatik heldutako diru-sarrerak.

2. Familia gurasobakar batek edo gurasobakartasun-egoerako batek bere izaera galduko du honako kasu hauetakoren batean aurkitzen den unean:

a) Familia-unitatearen burutza duen pertsona ezkontzea edo hark izatezko unitate bat eratzea, indarreko legeriari jarraituz.

b) Familia-unitatearen burutza duen pertsonak ez betetzea foru lege honetan ezarritako baldintzetatik edozein.

Artikulu berria. Familia gurasobakarraren eta gurasobakartasun-egoerakoen kategoria.

Foru lege honetan jasotzen diren onurak eta abantailak emateari dagokionez, familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun-egoerakoak bi kategoriatan sailkatzen dira:

a) Berezia

1. Hiru seme-alaba edo gehiagoko familiak.

2. Seme edo alaba bakarreko familiak, baldin eta familia-unitateak urtean lortzen dituen diru-sarrerek ez badute gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

3. Bi seme-alabako familiak, aitortuta badaukate % 33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

4. Bi seme-alabako familiak, baldin eta familia-unitateko buruak aitortuta badauka % 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua, mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

5. Genero-indarkeria jasan duen emakume batek osaturiko familiak, apirilaren 15eko 14/2015 Foru Legearen arabera.

b) Orokorra: 3. artikuluko baldintzetakoren bat beteta ere, aurreko apartatuan deskribatutako egoeretan ez dauden pertsonak.

KAPITULU BERRIA**Familia gurasobakarrei edo gurasobakartasun-egoeran daudenei aitorturiko onurak eta abantailak**

Artikulu berria. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako babes-ekintza.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren etapa guztietan, familia gurasobakarrei edo gurasobakartasun-egoeran daudenei berariazko baremoak aplikatuko zaizkie liburu, eskola-material, jantoki eta garraiorako laguntzak eta bekak ematerakoan.

Artikulu berria. Unibertsitate-hezkuntzako babes-ekintza.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoeran dauden familien unibertsitate-hezkuntzarako laguntzak. Familia horiek beka bereziak izanen dituzte irakaskuntzako, joan-etorrietako eta ostatuko gastuak ordaintzeko.

Artikulu berria. Hobari-sistema.

Nafarroako Gobernuak gizarte-etxe, aterpetxe, toki-kanpaleku eta aisia-jardueren tarifetarako hobari-sistema bat garatuko du familia gurasobakar edo gurasobakartasun-egoerakoentzat, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoen mendekoak izan eta Foru Komunitatean garatzen diren ondusun kultural eta kirol- eta aisia-jardueretarako irispidea izateko ere.

Artikulu berria. Garraio publikorako eta eskola-garraiorako hobariak.

Garraio publikoaren eta eskola-garraioaren erabilerarako hobariak aurreikusiko dira familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerakoan kideentzat.

Artikulu berria. Neurri sozialak eta osasun-arlokoak.

Nafarroako Gobernuak familia gurasobakarrentzako edo gurasobakartasun-egoeran dauden familientzako laguntzak edukiko ditu ortodontziako, entzumeneko, oftalmologiako, ortopediako, psikologiako, pedagogiako edo etxez etxeko laguntza zerbitzuetako tratamenduen ondoriozko gastuei aurre egiteko.

Artikulu berria. Etxebizitza-arloko babes-ekintza,

Babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioetan, zeinetan aginduzkoa den deialdi publikoa ateratzea eta baremoak aplikatzea, berariaz puntuatuko da eskatzailea familia gurasobakarra edo gurasobakartasun-egoeran dagoen familia izatea.

Artikulu berria. Neurri fiskalak.

Arlo fiskalean, familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerakoan trataera izanen da Nafarroan araudiak familia ugariei aitortzen dien bera.

Artikulu berria. Bestelako onura eta abantailak.

Aurrekoetz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onura eta abantailak sustatuko ditu "familia gurasobakar" titulua duten edo gurasobakartasun-egoeran daudenenentzako, hala Administrazio publikoen arloan nola enpresa pribatuenean.

II. KAPITULUA**"Familia gurasobakar" titulua aitortzeko eta jaulkitzeko prozedura**

5. artikulua. Prozeduraren hasiera.

"Familia gurasobakar" titulua aitortzeko eta jaulkitzeko prozedurak hasiko dira legezko gaitasuna izan eta familia-unitateko kide den edozein pertsonak eskatuta.

6. artikulua. Eskaera-eredua.

Eskaerak egin ahalko dira inprimaki normalizatuak erabiliz, familiaren arloan eskudun den departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituenak.

7. artikulua. Dokumentazio orokorra, 3. eta 4. artikuluetan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharrekoa.

1. Dokumentazio orokorra:

a) Eskaera-inprimakia, behar den moduan beteta.

b) Datu pertsonalen egiaztatzea:

I. Nazionalitate espainiarra duten pertsonak: eskatzailearen eta familia-unitateko kide diren 14 urte baino gehiagoko seme-alaben nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

II. Atzerritarrak: atzerritarraren identifikaziozenbakiaren (AIZ) kopia, edo hura kontsultatzeko baimena, edo familia-unitateko kide diren pertsona guztien pasaportearen edo Erregistro Zibileko hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentu guztiek indarrean egon beharko dute.

Eta gaztelaniaz ez badaude, kopia aurkeztu beharko da, ofizialki homologatua, eta gaztelaniazko itzulpena.

III. Familia-liburu osoaren edo familia-liburu osoen kopia konpultsatua edo adopzio, tutoretza edo familia-harrerari buruzko epai, notario-akta edo ebazpen administratiboa.

IV. Familia-unitatea osatzen duten pertsonen erroldatze-ziurtagiria, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

V. Erantzukizunpeko adierazpena, seme-alabek OAEAP baino gehiagoko diru-sarrerarik ez jasotzeko buruzkoa, aparteko ordainsariak barne.

2. Aurkeztu beharreko berariazko dokumentazioa, aurreko puntuan adierazitako dokumentazio orokorraz gainerakoa.

3.1 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorraz gainera:

a) Seme-alabak Erregistro Zibilean guraso bakarrarekin soilik inskribatuta egoteari buruzkoa. Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Alargunak edo baliokidetzat jotako egoeran dagoen pertsona batek seme-alabekin osatutakoa: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat (edo izatezko bikote bat) ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. Hil egin den aurreko ahaidearen heriotza-ziurtagiriaren kopia, familia-liburuan jasota ez badago.

c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako. Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, haur-gaietan eskudun den zuzendaritza nagusiak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan.

3.2 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorraz gainera:

a) Aitak edo amak seme-alaben zaintza edo jagoletza eksklusiboa edo erabatekoa duenean: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Familia bat non seme-alabak bere kargura dituen amak genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari

jarraituz. Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 4. artikuluan aitortutako arauen arabeko egiaztagiria; horrez gain, salbuespen-izaerarik gabe, honako hauen txosten teknikoak gehituko dira: 1. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoaren oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak. 2. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko osasun zerbitzuak. 3. Osasun mentaleko zentroak. 4. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko harrera zerbitzuak. 5. Emakumeentzako laguntzarako udal zerbitzuak, arreta integralerako profesionalak dituztenak. 6. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako batek mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoera aitorturik duenean. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasun handiko gradua aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun den departamentuak emana.

d) Gurasoen egoera zaintza partekatukoa denean: Egoera hori egiaztatzen duen epai judiziala.

e) (Kenduta).

a), c), d) eta e) letretako kasuetan PFEZaren azken aitortpena ere aurkeztu beharko da.

3. Aurkeztu beharreko berariazko dokumentazioa, 4. artikuluan ezarritako familia-egoeraren arabera.

a) Ezarritako adina luzatzea, ikasketak direla eta: Arrazoi horrengatik titulu horri eustekoak diren pertsonak egiten ari diren ikasketei buruzko egiaztagiria.

b) % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila: Desgaitasunari buruzko ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasunaren arloko departamentu eskudunak emana. Maila eta iraungitze-data agertu beharko dira, kasua bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

c) Mendekotasun handia edo baliaezintasun handia: Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasun handiko egoera aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun den departamentuak emana.

d) Lan egiteko ezintasunaren aitortpena: Lan egiteko ezintasunari buruzko ebazpena, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emana. Maila

eta iraungitze-data agertu beharko dira, kasu bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

8. artikulua. Non aurkeztu.

Familia gurasobakarraren titulua emateko, berritzeko edo aldatzeko eskaerak, lege honen 7. artikuluan ezarritako dokumentazioarekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko edo Nafarroako toki entitateetako erregistro-arloko laguntzarako bulegoetan aurkeztuko dira, edo eskaerak aurkezteari begira, oro har, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aitoritutako tokietatik edozeinetan.

Halaber, modu telematikoan aurkeztu ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

9. artikulua. Espedientea izapidetzea.

Familiaren arloan eskudun den departamentuak, ezartzen den prozeduraren bitartez, egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioa foru lege honen 7. artikuluan exigitutakoa dela.

Eskaerak ez baditu exigitutako betekizunak betetzen, edo ez bazaio lege honen arabera exigitzekoa den dokumentazioa eransten, interesdunari aginduko zaio gehienez 10 eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo eskatutako dokumentuak aurkez ditzan. Ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aginduzkoa den ebazpena eman ondoren; ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan eman beharko da.

10. artikulua. Ebazteko eskumena duten organoak.

Aurkezten diren eskabideak helaraziko eta ebazteko dituzte egitura organikoan familia-arloari dagokionez zehazten den organo eskudunak.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

1. Ebazpen espresa eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, ebazteko eskudun den organoaren edozein erregistro-tan eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Aipatutako epean ebazpen espresik ematen ez den kasuetan, ulertuko da eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez baietsi direla.

Puntu berria. Epea eten eginen da interesdunari ohartarazten zaionean eskabideko akatsen bat zuzendu behar duela, ohartarazpen hori jakinarazten zaionetik bete egiten den arte.

12. artikulua. Titulua eta banakako txartela ematea.

1. Familia gurasobakarraren izaera egiaztatzeke, familia osoarentzako titulu kolektibo bat emanen da, bai eta hura osatzen duten pertsona bakoitzarentzako banakako txartel bat ere, foru lege honetan ezarritako eredu jarraituz.

2. Familia gurasobakarraren titulu kolektiboak honako datu hauek eduki beharko ditu, gutxienez ere:

- a) Titulu zenbakia.
- b) Espediente zenbakia.

Letra berria. Familiaren kategoria.

c) Titularraren izen-deiturak eta identifikazio-agiriak.

d) Seme-alaben izen-deiturak, jaiotza-eguna eta nortasun-agiriaren zenbakia, bai eta aitortpenaren onuradun diren familia-unitateko pertsonen nortasun agiriaren zenbakia ere (halakorik baldin badute).

e) Familia-unitatearen helbidea.

f) Titulua zein egunetan eman edo, kasu bada, berritu zen.

g) Tituluaren indarraldia amaitzen den eguna.

h) Titulua emateko organo eskudunaren sinadura.

i) Titularraren sinadura.

j) (Kenduta).

3. Banakako txartelak haren titularraren izen-deiturak eta artikuluko honen 2. apartatuaren a), c), d), g), eta j) letretan jasotako datuak jaso beharko ditu.

13. artikulua. Eskaera eta eragin-data.

1. Familia gurasobakarraren tituluaren eskaera edozein unetan egin ahalko da, familia-unitateak hura lortzeko baldintzak betetzen dituenetik aurrera.

2. Familia gurasobakarrei emandako onurek eragina izanen dute titulu ofiziala aitortzeko edo berritzeko eskaera aurkezten den egunetik aurrera, baldin eta ematen den ebazpen administratioba aitortze edo berritze horren aldekoa bada.

3. Familia gurasobakarraren izaera aitortzen duen tituluak bere eraginak izanen ditu emateak edo berritzeak aipatzen duen aldi osoan, edo familia-unitatea sailkatuta dagoen kategoria aldatzea bidezkoa den unera arte edo familia gurasobakarraren aitortpena izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzeari uzten zaion unera arte.

4. Behin betiko tituluak egin bitartean, zilegi izanen da behin-behineko tituluak egitea, ezaugarri hori adierazita, behin betiko tituluaren eduki, eragin eta baldintza berekin, baliozkotasun-epea izan ezik, zeina 6 hilabetekoa izanen baita gehienez.

14. artikulua. Bidezkoak diren errekurtsioak.

Prozedurari amaiera emanen dion ebazpena aurkaratzen ahalko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean eta Administrazio Publikoaren administrazio prozedura erkideari buruzko arautan ezarritakoari jarraituz.

15. artikulua. Tituluen indarraldia.

1. Oro har, familia gurasobakarraren tituluaren indarraldia determinatuko du seme-alabaren batek 21 urte betetzen dituen egunak, gurasobakartasun-egoera ez aldatzearen baldintzapean betiere, 4.1 eta 2. artikuluetan zehaztutako betekizunen arabera.

2. Familia gurasobakarraren tituluak indarraldi berezia izanen du honako kasu hauetan:

a) Tituluak ikasketengatik berritzen badira, tituluak gehienez 26 urtera arteko indarraldia izanen du.

b) Iraupen jakin bat duen harreraren kasuan, tituluak iraupen bereko indarraldia izanen du. Hartutako pertsonak 18 urte betetzen dituenean, tituluak berritu ahalko da baldin eta familia-unitate berarekin bizitzen jarraitzen badu. Kasu horretan, tituluak bi urteko indarraldia izanen du.

c) Generoko indarkeriarengatik emandako tituluaren kasuan, tituluak bost urteko indarraldia izanen du.

d) Askatasungabetuta egotearen kasuan, tituluak eskatu ahalko da lehenengo urtea iragan ondoren, eta urtebeteko indarraldia izanen du.

e) Tituluak edo kategoria desgaitasun-mailaren, mendekotasun-egoeraren, lanerako ezintasunaren edo baliaezintasun handiaren arabera bada, aitortpen bakoitzak ezartzen duen indarraldia izanen du.

f) Familia-unitatearen diru-sarreraren arabera denean kategoria, urte bateko indarraldia izanen du.

16. artikulua. Tituluak berritzea.

Familia gurasobakarraren tituluak berritu edo bertan behera utzi beharko da, haren indarraldia amaitu denean ez ezik, tituluak jaulkitzeko edo hura ondoren berritzeko izan ziren baldintzetatik edozein aldatzen denean eta horren ondorioz kategoria-aldaketa bat gertatzen edo familia gurasobakarraren izaera galtzen denean. Halaber, berritu edo bertan behera utzi beharko da seme-alabetakoren batek familia gurasobakarreko kide gisa agertzeko baldintzak betetzeari uzten dionean, nahiz eta horren ondorioa ez izan sailkatuta dagoen kategoria aldatzea edo izaera hori galtzea.

17. artikulua. Berritzeko eskaerak.

Eskaerak eginen dira familiaren arloan eskudun den departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituen inprimaki normalizatueta, horiei honako dokumentazio hau gehituta:

Tituluak iraungi ondoren berritzearen kasuan, foru lege honen 7. artikuluan zehaztutako dokumentazioa baizik ez da aurkeztu beharko, betekizunak betetzen direla frogatzen duena.

Inguruabar familiarak edo pertsonalak aldatzearen ondoriozko berritzeen edo aldaketaren kasuan, aldaketa frogatzen duen dokumentazio orokorra aurkeztu beharko da, bai eta kasu jakinaren arabera behar den berariazko dokumentazioa ere.

18. artikulua. Tituluak desagertzea edo galtzea.

Tituluak desagertzen edo galtzen bada, kopia bat eskatzen ahalko da foru lege honen 16. artikuluan ezarritako eskabideen aurkezpenerako ezarritako lekuen bitartez.

19. artikulua. Komunikatzeko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharrak.

Familia gurasobakarraren tituluak aitortu zaien familia-unitateetako titularrak behartuta egonen dira familiaren arloan eskuduna den departamentuari komunikatzera inguruabar familiarretan edo pertsonaletan gertatzen diren aldaketak, gertatu eta gehienez ere hamabost eguneko epean, baldin eta horiek kontuan hartu beharrezkoak badira emanda duten titulurako eskubidea aldatzearen edo azkentzearen eraginetarako.

20. artikulua. Egiartzapen-ahalmenak.

Familiaren arloko eskumenak dituen departamentuak edozein unetan egiaztatu ahalko du familia gurasobakarraren titulurako eskubidea mantentzeko inguruabarrek eta baldintzek beren horretan dirautela, eta tituluaren bertan behera uztea ebatzi eta jakinarazi ahalko du.

Familia gurasobakarraren izaera aitortu eta hari eusteko, seme-alabek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea:

Lehen. 21 urte baino gutxiagoko adina izatea.

Adinaren muga hori 25 urtera arte luzatuko da, baldin eta ziklo eta modalitate desberdinetako unibertsitate-hezkuntzako ikasketak egiten badira, goi mailako lanbide heziketako ikasketak egiten badira, unibertsitatekoen edo lanbide heziketako-en maila parekideko ikasketa espezializatuak egiten badira edo lanpostu bat lortzera bideratutako ikasketak egiten badira, behar den baimena duten ikastetxe publiko zein pribatuetan.

Bigarrena. Desgaitasun bat edukitzea.

Lege honen eraginetarako, desgaitasuna duen pertsonatzat hartuko da ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua aitortua duena.

Hirugarrena. Lanerako ezintasun bat aitortua edukitzea, adina edozein dela ere. Foru lege honen eraginetarako, lanerako ezintasuna duen pertsonatzat hartuko da lanerako gaitasuna murriztua duena ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren pareko gradu batean.

b) Aurreko ahaidearekin bizitzea.

Ulertzen da bereizte-aldi iragankorrak ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza –nahiz eta bereizita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan–, baldin eta bereiztearen arrazoiak bada ikasketak egitea, lana, tratamendu mediko bat, errehabilitazioa edo antzeko beste arrazoi batzuk, horien barne direla ezinbesteko kasuak, aurreko ahaidearen edo seme-alaben askatasungabetzea edo adingabeen erantzukizun penalarik buruzko araudiari jarraikiz zentro batean barneratzea. Foru lege honen eraginetarako aurreko ahaidetzat aita edo ama hartuko dira. Aurreko ahaidearen baldintzaren parekidetzat jotzen da norberaren tutoretzapean edo familia-harreran seme-alabak edukitzea, betiere norberarekin eta norberaren kontura bizi badira.

c) Ekonomikoki aurreko ahaidearen mendekoa izatea.

Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabetako bakoitzak ez duenean jasotzen, urteko kopuruari begiratuta, urte bakoitzean indarrean den OAEAP-ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik gorako diru-sarrerarik, aparte-ko ordainsariak barne.

21. artikulua. Titulu-bateragarritasunari buruzko araubidea.

Familia gurasobakarraren titulua bateragarria da familia ugariaren tituluarekin, baina titulu horietatik heldu diren mota edo izaera bereko onurak ezin izanen dira metatu, salbu eta berariazko araudi batek kontrakoa ezartzen duenean.

22. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

Familia gurasobakarraren titulua lortzeko eman behar diren izaera pertsonaleko datuak, lege honetan arautzen direnak, eragin horietarako fitxategi automatizatu batean jasoko dira. Datu horiek babestuta egonen dira; hain zuzen, Datu-pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikatzekoak diren gainerako arauen babespean.

III. KAPITULUA Zehapen araubidea

23. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren administrazio-urraketak hurrengo apartatuan tipifikaturiko jokabideak eta gertaerak dira, baldin eta haietan doloa, errua edo besterik gabeko zabarkeria bada.

Alde horretatik, erantzule izanen dira urraketa gisa tipifikaturiko jokabideetakoren bat egiten duten familia-unitateko kideak.

2. Urraketak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

a) Honakoak dira urraketa arinak:

1. Organo eskudunari ez jakinaraztea familian gertatzen den edozein aldaketa, kontuan hartzekoa denean titulurako eskubidea aldatu edo iraungitzeari dagokionez.

2. (Kenduta).

b) Honakoak dira urraketa astunak:

1. Hiru urraketa arin egitea, zehapen irmoa ezarriko dagoenean.

2. Familia gurasobakarraren izaera lortu edo mantendu ahal izateari dagokionez foru legeak ezartzen dituen betebeharrak edo baldintzetan datuen bat ezkutatu edo faltsutzea.

3. Titulua lagatzea horren pean ez dauden beste pertsona batzuei.

4. Familia gurasobakarraren titulua bidegabeki edo abusuz edukitzea edo erabiltzea.

c) Urraketa oso astuna izanen da bi urraketa astun edo gehiago egitea, zehapen irmoa ezarririk dagoenean.

3. Izan litezkeen bestelako erantzukizunak deusetan galarazi gabe, honakoak dira aurreko apartatuan aipatzen den urraketetakoren bat egiten duten pertsonen ezartzen ahalko zaizkien zehapenak:

a) Urraketa arinengatik:

1. Banakako kargu-hartzea, idatziz.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien edozein eskubide bertan behera uztea, gehienez ere hilabetez.

b) Urraketa astunengatik:

1. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubide guztiak bertan behera uztea, hilabete bat baino gehiagoz eta, gehienez, sei hilabetez.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubideetatik baten bat bertan behera uztea, sei hilabete baino gehiagoz eta bi urte baino gutxiagoz.

c) Urraketa oso astunengatik:

1. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubide guztiak bertan behera uztea, sei hilabetez bi urtera bitarte.

2. Onuradun izaera galtzea.

4. Ezarri beharreko zehapenak mailakatzeko, kontuan hartuko da familia gurasobakarraren titulua erabiltzeagatik lorturiko onuraren izaera eta zenbatekoa.

Xedapen gehigarri bakarra. (Kenduta)

Xedapen gehigarri berria.

“Familia gurasobakar” titulua lortzeko prozeduraren araubideari buruz II. kapituluan jasotzen diren arauak erregelamendu bidez aldatzen ahalko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Garapena.

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak, zeinak familiaren arloko esku-mena baitauka, sei hilabeteko epean emanen ditu foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquier-

da-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2018ko abenduaren 12ko 151. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 17an, erabaki du aintzat ez hartzea Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena, zeina Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu baitzuen eta 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren autokontsumo eta biltegiatze elektrikoari buruzko plan bat taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren autokontsumo eta biltegiatze elektrikoari buruzko plan bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroako Gobernuaren autokontsumo eta biltegiatze elektrikoari buruzko plan bat taxutu dezan, kontuan hartuz energia garbien ezarpena maximizatzea Gobernuaren eraikin, egoitza edo eremu guztietan eta soberakina biltegiatzea, halaber ekimen hori gainerako administrazioetara helaraziz.

– Irmoki lagundu ditzan autokontsumo eta biltegiatze elektrikoarako ekimenak, gure herrialdean jadanik daudenak, laguntza ekonomikoak,

kudeaketa administratiboa eta aholkularitza teknikoak eskainiz.

– Eguzki-energia, eolikoa, geotermikoa, hidroelektrikoa edo biomasakoa ekoizteko instalazio berrien ezarpena sustatzea Nafarroako toki administrazio guztietan, horietarako ere laguntza ekonomikoak, kudeaketa administratiboa eta aholkularitza teknikoak emanaz.

– Autokontsumorako laguntza guztietan klausula sozial bat gehitzea, zeinaren bidez autokontsumorako ekoizpen elektrikoaren zati bat bideratuko baita pobrezia energetikoko kasuak murriztera, etxebizitza horiek berezko sarera lotuz edo, bestela, soberakinaren diru-sarrerak xede horretara bideratuz.

– Nafarroako herri eta hirietan eguzki-panel fotovoltaikoak paratzea, oro har, mugatzen duten ebazpenak indargabetzea. Hala nola, esate baterako, Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusiaren 2007ko 225., 239., 281., 282., 283., 301. eta 302. ebazpenak”.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoan har dadin laguntzak emateko aukera kontratua izan eta Gizarte Segurantzzen alta emanda egon arren prestakuntzarik edo gaikuntzarik ez daukaten zaintzaile profesionalek zaindutako pertsoneri, baldin eta zaintzaile horiek hamabi hilabeteko epean prestakuntza edo gaikuntza lortzeko konpromisoa hartzen badute.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoan har dadin laguntzak emateko aukera kontratua izan eta Gizarte Segurantzzen alta emanda egon arren prestakuntzarik edo gaikuntzarik ez daukaten zaintzaile profesionalek zaindutako pertsoneri, baldin eta zaintzaile horiek hamabi hilabeteko

epean prestakuntza edo gaikuntza lortzeko konpromisoa hartzen badute". Mozioa Maribel García Malo andreak aurkeztu zuen eta 2019ko urtarrilaren 11ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa, zeina Ana Beltrán Villalba andreak

aurkeztu baitzuen eta 2019ko urtarrilaren 15eko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren antolaketari buruzko erregelamendua- ren aldaketa.

Kontuen Ganberaren lehendakariaren 2007ko otsailaren 16ko ebazpenaren bidez onetsi zen erakundearen antolaketari buruzko erregelamendua; geroago, 2012ko urtarrilaren 20ko ebazpenaren bidez, erregelamendu hori aldatu zen, halako moduan non 7 bis artikulua sartu baitzen, sistema informatikoetako ofizial teknikoaren lanpostuari dagozkion eginkizunak eta titulazioa arautzeko.

Lehendakari honek urtarrilaren 16an hartutako erabakiaren bidez onetsi da Kontuen Ganberaren 2019rako plantilla organikoa, zeinean erakunde honetako informatika alorrerako lanpostu berri bat jasotzen baita, erakundeko lanpostuen gaur egungo sailkapeneko "B" mailan: "informatika sistemetako erdi-mailako teknikaria".

Lanpostu hori Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean egon da, eta helburu du erakundearen arlo informatikoa indartzea Ganberako auditoriako ekipoei laguntza emateko beren fiskalizazio lanak egin ditzaten, eginkizun eta sistema informatikoei buruzko auditoriak egiten laguntzea, teknologia berrien nahiz programa eta sistema informatikoen erabilerari eta aplikazio-aukerei buruzko prestakuntza eta laguntza teknikoa ematea erabiltzaileei, eta goi-mailako teknikariak agintzen ahal dizkion lanak egitea.

Lanpostu hori sortzeak ahalbidetuko du erakundearen 2017tik 2022ra bitarteko plan estrategikoan jasotako auditoria informatikoko lanak egitea; izan ere, plan horretan aurreikusten da langile espezializatuekin indartzea informatikaren arloa, fiskalizazio-ekipoei auditoria informatikoa egiten laguntzeko, eta erantzuna ematen die erakundearen informazio-sistemen planean detektatutako beharizane (plan hori sistema informatikoetako goi-mailako teknikariak taxutu zuen 2018ko apirilaren 23an). Halaber, informazio-sistemen plan horretan egiten diren aurreikuspenek beharrezkoa

egiten dute sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostuari esleitutako eginkizunetako bat aldatzea; hartara, f) letra gehitu zaio Antolaketari buruzko Erregelamenduko 7 bis artikuluari, zeinean jasotzen baitira, arestian adierazi den legez, eginkizun horiek.

Hortaz, beharrezkoa da Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduan sartzea sistema informatikoetako erdi-mailako teknikari lanpostu berri hori, bai eta haren aginte-menpekotasuna eta eginkizunak ere. Hartara, lehendakari honek, Ganberako auditoreei eta sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari nahiz Langileen Batzordeari entzun ostean, erakundeko idazkari nagusiak proposatuta, Kontuen Ganbera arautzen duen Foru Legean aitortzen zaizkion ahalmenak eta eskumenak baliatuta, honako hau

ERABAKI DU:

1. 7 ter artikulua berria txertatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduan, zeina 2007ko otsailaren 16ko ebazpenaren bidez onetsi baitzen, erakundeko sistema informatikoetako erdi-mailako teknikariaren lanpostu berriari eskatutako titulazioa, eginkizunak eta aginte-menpekotasuna arautzeko eta erregelamendu horretako 7 bis artikuluko 1. apartatua aldatzea, f) letra gehituta, ebazpen honetako l. eranskinean ezarritako moduan.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, Mahaiak honen berri izan dezan eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agin dezan. Ebazpena orobat igorriko zaie Ganberako idazkari nagusiari, administratzaileari, kontu-hartzaileari, sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari eta Langileen Batzordeari, honen berri izan dezaten.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

I. eranskina

7. ter artikulua.

1. Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean, sistema informatikoetako erdi-mailako teknikariak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean, Ganberako auditoriako ekipoei laguntza informatikoa ematea beren fiskalizazio-lana egin dezaten.

b) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean, Ganberako auditoreei aholku ematea eta haiekin lankidetzan aritzea eginkizun eta sistema informatikoei buruzko auditoriak egin ditzaten.

c) Kontuen Ganberan tresna informatikoak garatzen eta ezartzen laguntzea Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari.

d) Teknologia berrien erabilerari eta aplikazioa aukerei buruzko prestakuntza eta laguntza tekniko ematea erabiltzaileei.

e) Aplikazioen produktibitateari eta horien garapenari buruzko hobekuntzak proposatzea Ganberako lanpostu zehatzei.

f) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariak, bai eta Kontuen Ganberako langileek ere, eska diezazkioketen gisako eginkizun guztiak, bere titulazioak eta ezagutza-arloak berezkoak dituztenak.

2. Sistema informatikoetako erdi-mailako teknikariaren lanpostua beteko da gutxienez ere unibertsitateko diploma, ingeniari-tza edo arkitekturen teknikoko titulua edo ofizialki horien baliokidetzat jotzen den titulua daukaten pertsonekin edo lizentzia, ingeniari-tza edo arkitektura bateko lehen hiru ikasmak, edo ofizialki horien baliokide deklaraturako beste titulu batekoak, osorik gainditu dutenekin.

7 bis artikulua

1. apartatua f) letra sartuko da. Hona:

f) Kanpo-euskarriarekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, ekipoetan eta aplikazioetan Ganberako langileek konpondu ezin dituzten gorabeherak konpontzeko.